

Oiloen irakaspena

Agus Perez

Oilo nahi gaituzte, oiloak bezain beldurtiak, elkarririk mokoka baina produktibo.

Hobe elkarririk mokoka goikoei mokoka baino, eta goikoek badiutuzte beren legeak, beren morroiak, beren estrategiak gu oila-tegian gera gaitezen. Esandako planteamendua muturreraino emanda, etorkizuneko gizarte guztiz ezeztatua diseinatu du Gotzon Barandiaranek bere testuan, non herri euskaldun bateko bizilagunek ezin duten sinistu aitaita-amamaren garaian norberak aukeratzen zuela nahi zuen arraina portutik ekarri berritan.

Barandiaranen testuak asko du giroan *Fahrenheit 451* izeneko film haren giroa totalitario depresibotik eta -ia garai bereko beste erreferente nagusi bat ematearren - ezinbestean gogoratu digu Eugene Ionescoren *Les Chaises* [Aulkiak] antzezlan mitikoa. Nire irudipena da Barandiaranek baretetik zein bestetik edan baino gehiago usaindu eta ezpainak busti dituela, sommelier baten antzerki, eta nik esango nuke sublimatu egin dituela bata eta bestea, *Fahrenheit*-eko giro profetikoa eta *Les Chaises*-eko absurdu metafiorikoa gaurko gure Euskal Herria ekarrita.

Hala ere, kontuan hartu behar dugu ohiko ikuspegitik esanda dagoela hori guztia, zeren eta antzezlanaren arima eta erdigunea Ander Lipus markina-xemeindarra dugu, haren ekimenez jarri delako testu hau muntaiaren zentraltasunean eta haren zuzendaritzapean igo direlako Abarka talde ez profesionaleko kideak antzezipen-maila bikainera.

Emanaldia hasi aurretik sumatu dugu eszenaratzaren itxura

KRITIKA Antzerkia Besaulkiak

Konpainia: Abarka. **Egilea:** Gotzon Barandiaran. **Zuzendaria:** Ander Lipus. **Lekua:** Markina-Xemeingo frontoia. **Eguna:** Ekainak 10.

landua. Frontoi batean egon arren - nolatan ez du Markina-Xemeinek XXI. mendean gerozko antzoki bat? -, eurenak eta bost egin ditu konpainiak ahalik eta kaxa eszenikorik itxurosoena atontzeko, alboetako hanka-oihalak, foku-barrak, soinu-instalazioa eta guzti, eta etekin polita atera die esku arten zeuzkan baliabide ez-oparoei, Amaia Garate Olanoren planteamendu estetikoek segika eta Arantza Florensen argien diseinua lagun.

Eremu eszeniko ia huts horretan protagonismo handia hartu dute egurrezko kutxa ia metafisikoek - azken sorpresa eszenikoa gorde du - eta, zelan ez, aulkiek, era guztietako aulkiek, geu ere era guztietakoak garelako, Mozkin jauna besaulki ultramoderno enpresariak kontrakoa nahi duen arren. Duda barik, zuzendariak ahalik eta rol egokiena eman dio antzezele bakoitzari, eta haietariko batzuek - atso matxinoa, aguazil patetikoa, Mozkin jauna... - nahiko testu luzeak defendatu dituzte, baina argi dago ordu asko egin dituztela guztiek pertsonaien prestaketan eta denetarik beharretan. Azkenik, aipatzekoa da Mikel Unamunzagaren musika, tarte esanguratsuak txertatu dituelako testuaren trinkotasunean eta ezinbesteko laguntza eman duelako giroak eta eszenak bideratzerakoan.



Asier Osinalde Vidal, *Baina ez lukete han egon behar* ipuin bildumaren aurkezpenean, atzo. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Argazkitik at dagoena

Asier Osinalde Vidalek lehenengo liburua argitaratu du, *Ereinekin: 'Baina ez lukete han egon behar'* • Bilduma bat da, hamabi ipuinekoa

Maialen Unanue Donostia

Bere lehenengo liburua kaleratu du Asier Osinalde Vidalek, Erein argitaletxearekin: *Baina ez lukete han egon behar*. Hamabi ipuinez osatutako bilduma bat da. Egileak azaldu duenez, ipuin guztiek egin dute «kanpoko mundutik barruko mundura» bidaia, «azuletik muinerakoa»: «Izan ere, barruan gordetzen dugu benetan inporta zaiguna, eta, normalean, gainera, ez ditugu konpartitzen halakoak».

Osinalderen esanetan, hiru dira, batik bat, maiz agertzen diren elementuak: argazkiak, ispi-luak eta begiak. «Konturatu naiz hiru elementu horiek badirela kanpoko munduaren eta barrukoaren arteko muga, eta, era berean, bi mundu horien arteko zubi ere badirela». Liburuaren azalean, hainbat argazki marko ageri dira pareta batean zintzilik, baina ez dute argazkirik erakusten. «Ez dakit gertatu zaizuen argazki baten aurrean jarri, edo, hobe esanda, erretratu baten aurrean jarri eta pentsatzea: 'Ondo dago, baina nor da argazki horretan azaltzen den hori?'». Haren esanetan, argazkiek irudi bat erakustean harago, ez dute kontaktzen ageri diren pertsonen tes-

tingurua edo zer sentitzen zuen. «Horixe eginen saiatu naiz ipuin hauetan: ikusten ez denetik ikusten denerako bidaia intimoa».

Era askotako pertsoniak sortu ditu Osinaldek ipuinotan: besteak beste, jostun bat, argazkilari bat, bere herrialdetik ihes egiten duen tabernari bat, Erasmus ikasle bat, herrioz izkin egiten saiatzen

geldituko diren batzuk, baita alabrearen gainean dabilzanik konturatzen ez direnak ere».

Pertsoniak eta ipuinak «ustez independenteak» dira, baina batzuek zein besteek elkar eragiten dute: horrela, bildumari osotasuna ematen saiatu da Osinalde. «Pixkanaka, armiarma sare lauso bat sortzen da: badaude bukaera arte elkartzan ez diren eta modu paraleloan aurrera egiten duten istorioak». Azken ipuinean egin dute guztiek bat, Euskal Herrian kokatutako fikziozko herri batean, Ibar izenekoan.



Argazkiak, ispi-luak eta begiak kanpoko munduaren eta barrukoaren arteko muga eta zubi dira»

Asier Osinalde Vidal
Idazlea

den lorezain bat eta preso ohi bat. Baina guztiek dute elkartzan dituen zerbait: «Saiazen dira egunerokoan beren atsekabe eta frustrazioekin, esperantza eta ametsekin, beldur sekretu eta ahuleziekin aurrera egiten: bizi dugun egoera likido edo ezegonkorrean orekari eusten saiatzen dira». Ez dute denek lortuko, ordea: «Batzuek alabrearen gainean irautea lortuko badute ere, beste batzuk erori egingo dira; badaude alabrean betiko zintzilik

Saritutako ipuinak

Osinaldek gogoko du bidaiatzea, eta ugari dira ipuinetan ageri diren lekuak: Argentina, Alemania, Italia, Espainia... Ipuinak «nahiko bisualak» dira, eta orainaldian idatzita daude guztiz, «gaurkotatuna eta gertutasuna emateko»; esaldi motzak erabiliz, bizitasuna ematen saiatu da ipuinean.

Labidez irakaslea da Osinalde, eta «diziplina handirik gabe» idatzi izan du, azaldu duenez. 2012ko irailaren eta 2014ko otsailaren artean idatzitako ipuinak dira, eta bildumako ipuin batzuk -orain argitaratu diren aurreko bertsiok- saritatu izan ziren, lehiaketa desberdinetan.

berriak		
4 gau apartamentu 6 lagunentzako, pertsonako	276€	<p>Aukera gehiago gure bulegoan eta www.bidaibila.com</p> <p>HERNANI BIDAIAK Lifurte: 9 943 33 00 49</p> <p>HERNANI BIDAIAK</p>
3 gau apartamentu 6 lagunentzako, pertsonako	220€	
4 gau 4* Hotel Boutique, pentxo erdian edariak barne	232€	
9 gau 4* Hotelean, pentxo osoan, edariak barne	390€	
7 gau 4* Hotelean, pentxo osoan, edariak barne	280€	
7 gau 3* Hotelean, gosiak barne	555€	
9 egun: Mahe-Prasin-Digue 4* Hotelean, gosiak barne	1705€	
15 eguneko zirkuitu 3 eta 4* Hotelean, pentxo erdian 4 pertsona	2262€	